



Arartekoaren 2023R-2073-21 EBAZPENA, 2023ko maiatzaren 26koa. Honen bidez, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari gomendatu zaio guraso bakarreko familia baten diru-sarrerak bermatzeko errenta ezeztatze eabazpena berrikus dezan, ez dagoelako zio nahikorik ezta arrazoirik ere prestazioa iraungi izana bizikidetzaren unitate berezi osora hedatzeko.

Aurrekariak

1. Pertsona batek kexa bat egin du Arartekoan, eta haren muina da diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) prestazioa ezeztatu egin diotela.

Kexagileak DSBE eskatu zuen guraso bakarreko familia gisa, haur batekin ardurapean; izan ere, duela gutxi ama izan zen eta bost hilabeteko haur bat zaindu behar du. Lanbidek eskaera ezeztatzea ebatzi zuen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Prestazioen eta Inklusioaren zuzendariaren 2021eko uztailaren 30eko Ebazpenaren bidez, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28.3 artikuluan ezarritakoa aplikatuta (18/2008 Legea), 4/2011 Legeak emandako idazketan.

Lanbidek prestazioa ukatu izana arrazoitzeko azaldu du pertsona horrek osatzen duen bizikidetzaren unitateari DSBE iraungi zitzaioela 2019/RGI/002692 espedientearen bidez. Kasu horretan, prestazioa kexagilearen amari iraungi zitzaion (titularra baitzen). Prestazioa iraungitzen den kasuetan ezin daiteke urtebetez DSBE berriz eskatu.

Kexagileak gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu zuen, baina Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2022ko otsailaren 23ko ebazpenaren bidez ezetsi zen.

Ebazpen horren Zuzenbideko Bosgarren Oinarriaren arabera ezeztatzen da, 147/2010 Dekretuaren 3.5 artikuluan oinarrituta. Artikulu horren arabera, DSBE bizikidetzaren unitateko kide guztien mesederako ematen da, eskubidearen titulartasuna bizikidetzaren unitateko kide bakar bati badagokio ere: "En consecuencia, como ya se informa en la página web de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, tanto la persona titular de la prestación como las beneficiarias tienen que cumplir las obligaciones generales que se indican al conceder la prestación, y los compromisos asumidos en el convenio de inclusión, motivo por el cual, se ven afectadas por los incumplimientos en que pueda incurrir la unidad de convivencia.

Partiendo de esta premisa, ha de traerse a colación el expediente de RGI 2019/RGI/002692, del que fue beneficiaria la administrada y que fue extinguido con fecha de efectos 1 de abril, por aplicación de lo dispuesto en el artículo 28. 1 e de la Ley 18/2008, al coexistir de dos suspensiones por incumplimiento en el periodo de dos años de vigencia de la prestación. Por tanto, dado que la administrada era miembro de la unidad de convivencia en el momento en el que se hizo efectiva la





extinción, se vio afectada por ésta tanto por la propia finalización de la prestación, como por sus consecuencias que, en este caso, implican la imposibilidad de volver a solicitar la RGI, en cualquiera de sus modalidades, por un periodo de un año a contar de la fecha de extinción, en virtud del artículo 28.3 de la Ley 18/2008.

Dicha afectación, además, no se ve alterada por el hecho de que la administrada pretenda, en el presente expediente, una unidad de convivencia diferenciada de sus progenitores, formada por ella y por su hijo, toda vez que ésta última se constituye tras la efectividad de la extinción anteriormente señalada y solo despliega efectos a partir de dicha constitución”.

2. Arartekoak kexa izapidetzeko onartu zuen, eta ondoren, adierazitako egitateei buruzko informazioa eskatu zion Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari. Horrez gain, aldez aurretik aurretiko gogoeta batzuk helarazi zizkion. Errepikakorrak ez izatearren, gero aipatuko ditugu.

Lanbidek Arartekoari erantzun zion 18/2008 Legearen 28.3 artikuluan ezarritakoa aplikatu duela jakinarazteko. Horren arabera, diru-sarrerak bermatzeko errenta berriz ere eskatzeko ezintasuna ezarri zen, edozein modalitatetan, 18/2008 Legearen 28.1 e) artikuluan jasotako arrazoi baten ondoriozko azkentze datatik hasi eta urtebeteko epean. Ulertzen da ezintasun hori “bizikidetza unitateko edozein kideri heda dakiokela”. Lanbidek Arartekoari bidalitako txostenean errepikatu zuen errekurtsoren ebazpenean adierazitakoa, hau da, prestazioa berriz eskatzeko ezintasuna eta prestazioa iraungitzea ez direla aldatzen onuradunak gurasoengandik bereizitako bizikidetza unitate bat izateagatik (berak eta bere haurrak eratuta), “izan ere, iraungitze hori lehen aipatutako azkentzearen eraginkortasunaren ondoren eratzen da, eta eratze horretatik aurrera bakarrik hedatzen ditu ondorioak”.

Aurrekariak aztertu ondoren, Arartekoak hau adierazi du:

Gogoetak

Lehenengoa. Maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren (Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa), (147/2010 Dekretua) 5.2 c) artikulua honako hau aurreikusten du bizikidetza-unitate berezi gisa: Adingabeak kargura dituzten pertsonak. Arau hori aplikatuz, honako hauek hartuko dira kontuan: “1. *paragrafoko b) idatz-zatian aurreikusitako loturaren bat daukaten pertsonen helbidean integratzen direnean ere*” (ezkontza edo beste harreman iraunkor bat, 4. mailarainoko odol-ahaidetasuna edo 2. mailarainoko ezkontza-ahaidetasuna).

Araudian ezarritako hori kontuan hartuta, bizikidetza unitate berezi bat eratzen duenez bere kargura adingabe bat izateagatik, kexagileak eskubidea du bi urtez DSBE jasotzeko, nahiz eta familia harremanak dituzten pertsonen etxean egon.





Argitu behar da DSBE ezeztatzeko arrazoi bat den kexagileak lehenago eratzen zuen bizikidetza unitatearen DSBE iraungi izana, araudian ezarritakoa gorabehera.

Datu interesgarri gisa, Arartekoak adierazi du Lanbidek, 2014ko abenduko irizpideen dokumentuan aipatutako araudia indarrean zegoenez, hainbat kasu ezarri zituela. Hau da, titularra edo bizikidetza unitate bateko kide bati prestazioa eteteko edo iraungitzeko arrazoiak izan arren, titularrak edo bizikidetza unitateko kideak DSBE jaso ahal izango zuen, kide guztiengan eraginik ez izateko.

Gainera, araudian ez da ezartzen bizikidetza unitateko gainerako kideek nahitaez eraginak jasan behar dituztenik; izan ere, arauan adierazten denez, hautazkoa da bizikidetza unitateko beste kideei prestazioa eskatzeko muga hedatzea. *Ido horretatik, 147/2010 Dekretuaren 50.2 artikulua honako hau ezartzen du: "Prestazioa azkentzeko arrazoiak betebeharrak ez betetzea edo arau-hausteak egitea izan bada, titularrak ezin izango du berriz ere diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatu (edozein izanik ere modalitatea) eskubidea azkendu den unetik urtebete igaro arte. Ezintasun hori bere bizikidetza-unitatean titular izaera izan dezaketen kide guztietara hedatuko ahal izango da, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak behar bezala arazoitutako txosten-proposamena egin ondoren."*

Era berean, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28.4 artikulua, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea aldatzen duen azaroaren 24ko 4/2011 Legeak emandako idazkeran, honako hau ezartzen du 4. paragrafoan: *"Prestaziorako irispidea urgentziazko prozeduraz eta lehentasunez tramitatuko da, hilabetetik gorakoa ezin izan daitekeen epe batean, baldin eta ordura arte titularra zen pertsonari zegokion diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea iraungitzeak edo mantentzeak ageriko kalteak ekartzen badizkie familia-unitateko gainontzeko kideei."* Arartekoak egiaztatu ahal izan du izapidetu dituen beste kexa espediente batzuetan, Lanbidek ez diela ezarri iraungitze hori bizikidetza unitateko beste kide batzuei.

Beraz, araudiak zigorra hedatzeko aukera ezartzen du, bai eta kide batek DSBEren eskaera premiaz izapidetzea ere, DSBE iraungitzeak ageriko bizikidetza unitateko gainerako kideengan eragina izan ahal duenean. Hortaz, aukera bat da.

Ñabardura garrantzitsua da, izan ere, iraungitzea hedatu ahal bada ere, ez da betebeharrak legal bat. Hortaz, aztertu beharko litzateke Lanbidek behar bezala baliatu duen **irizpidezko ahalmen** hori, Legearen aurrean berdin-berdin balio duten bi aukeraren edo gehiagoren artean.

Bigarrena. Arartekoaren ustez, bizikidetza unitateko gainerako kideek prestazioa iraungi izanaren ondorioak jasatea, erabaki hori justifikatzen duten garrantzizko arrazoietan oinarritu behar da, EKren 9.3 artikuluan ezarritako botere publikoaren arbitrariotasuna debekatzeko konstituzio agindua eta EKren 103.1 artikuluan ezarritakoa errespetatuta:





“Herri Administrazioak objektibotasunez betetzen ditu interes orokorrak, eta eragingarritasun-, hierarkia-, dezentralizazio-, deskontzentrazio- eta koordinazio-printzipioen arabera dihardu, legeari eta zuzenbideari bete-betean men eginez.”

Erakunde honen ustez, Lanbidek ez du behar bezala arrazoitu 2021eko uztailaren 30eko ezeztatzeko ebazpena. Izan ere, bertan ez da adierazten zergatik hedatu den bizikidetzaren unitate berezira urtebetez prestazioa eskatzeko ezintasuna. DSBE ezeztatzeko arrazoi gisa soilik aipatzen du kexagilea DSBE ezeztatu zitzaion bizikidetzaren unitate baten barruan dagoela, eta aukera hori 147/2010 Dekretuaren 50.2 artikuluan jasota dagoela. Ez du azaltzen zergatik hedatu duen iraungitzea.

Auzitegi Gorenak ezarri du, irizpidezko erabakiak hartzeko, ezinbestekoa dela arrazoitzea, hori delako zentzuz jokatu izanaren bermea eta, gainera, erabaki horiek behar bezala kontrolatzeko aukera ematen duelako¹.

“La discrecionalidad, en cualquiera de sus variantes, parte de la posibilidad de elegir entre un mayor o menor abanico de opciones o, si se prefiere, resulta que su ejercicio permite una pluralidad de soluciones justas, o de optar entre alternativas que, en general, sean igualmente justas desde el punto de vista del Derecho o, tal vez mejor, "razonables", desde el mismo punto de vista, por lo que el ejercicio de la potestad discrecional presupone una opción entre varias posibles, y una "razonabilidad" en un marco socio-cultural determinado, pero, precisamente por ello, la decisión discrecional exige, como inseparable de ella, la motivación, que es la que garantiza que se ha actuado racionalmente, y no arbitrariamente, y la que permite un adecuado control de los actos discrecionales, exigiéndose así una motivación "suficiente" que, al menos, exprese apoyo en razones que permitan conocer cuáles han sido los criterios esenciales fundamentales de la decisión (sentencia del Tribunal Constitucional 14/91), fórmula un tanto vaga, si se quiere, pero que tiene la ventaja de poder medirse caso por caso si se cumple o no con la "suficiencia" (sentencia del Tribunal Constitucional 100/87) (FJ5, STS 1 de junio 1999).

Hortaz, irizpidezko ahalak baliatzea, doktrinak eta jurisprudentziak zehaztutako muga jakin batzuen mende dago, batzuk bere eduki arautuari lotuta, eta beste batzuk, berriz, Zuzenbidearen printzipio orokorreari (EKren 9.3 artikuluari buruz aipatutako bezala), gertakari erabakigarriei (administrazio jardunak ezin du erabaki horren atzean dagoen errealitatea alde batera utzi, ezta aldatu ere) eta nahitaezko arrazoiei lotuta.

Ildo beretik, Auzitegi Nazionalak² mugatu du zer kontrolatu behar den irizpidezko jarduketaren bat dagoenean, eta ondorioztatuenez: “Así pues, el control de tal potestad discrecional no se detiene simplemente por la presencia de una resolución administrativa en que la misma sea ejercitada, sino que la revisión de la

¹ **Auzitegi Gorena**. 1999ko ekainaren 1eko Epaia, Administrazioarekiko Auzietako Sala, 7. atala, 6767/1993 Errek.

² **Auzitegi Nazionala**, Administrazioarekiko Auzien Sala, 1. sekzioa, 2004ko azaroaren 24ko epaia, 562/2000 erreka.

discrecionalidad exige la ausencia de una aplicación razonada y racional de tal potestad, cuyo ejercicio requiere razonar y motivar la decisión adoptada, de suerte que en ningún momento pueda tildarse de arbitraria la actuación administrativa”.

Beraz, ez da nahikoa baloratzea araudian ezarritako ahalmen bat baliatu den edota erabakia organo eskudunak hartu duen, bere eskumenak baliatzean. Irizpideak kontrolatzeko baloratu behar da eskumen horiek modu arrazoituan eta zentzuz baliatu diren, eta horretarako erabakia hartzeko arrazoiak ezagutu behar dira.

Arartekoak ikusi du prestazioa ezeztatzeko ebazpenak ez duela jasotzen behar bezala arrazoitutako edo zentzuzko arrazoirik bizikidetza unitate bereziari DSBE ezeztatzeko. Apelazio errekurtsua ezesten duen ebazpenak ere ez du halakorik jasotzen; izan ere, ebazpen horrek, arauan ezarritakoa aipatu ondoren, soilik honako hau dio: prestazioa iraungo ondoren bizikidetza unitate berezia eratzek ez du inolako ondoriorik prestazioa iraungi izana hedatzeko erabakia hartzerakoan. Bada, hain zuzen ere, gerora sortutako eta babesa merezi duen egoera horrek (hau da, haur bat jaiotzeak) azaltzen du bizikidetza unitate berezi hori eratu izana.

Herritarrek administrazio ona izateko duten eskubidea, administrazio erabakiak arrazoitzeko betebeharra barne, Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 41. artikuluan aitortuta dago. Eskubide hori Europar Batasunaren esparrura mugatuta badago ere, Europar Batasuneko estatuen antolamenduetan integratzen ari da, eta ebazpen judizialetan kontuan hartzen da, 2015eko azaroaren 20ko Auzitegi Gorenaren epaian gertatu den moduan³ “(...) y ciertamente tal exigencia puede deducirse incluso, no sólo de nuestro propio ordenamiento interno, sino también del derecho a la buena administración reconocido por la normativa europea (artículo 41 de la Carta de Derechos Fundamentales de la Unión Europea: con proyección general, no obstante lo establecido también por el artículo 51 de dicha Carta, porque resulta difícil establecer y explicar un distinto nivel de enjuiciamiento, según se aplique o no el Derecho de la Unión Europea por los operadores en el ámbito interno)”. Duela gutxiagoko 2020ko urriaren 15eko Epaian⁴, Auzitegi gorenak dio administrazioaren printzipio ona dela hau: “un nuevo paradigma del Derecho del Siglo XXI referido a un modo de actuación pública que excluye la gestión negligente y [...] no consiste en una pura fórmula vacía de contenido, sino que se impone a las Administraciones Públicas, de suerte que el conjunto de derechos que de aquel principio derivan (audiencia, resolución en plazo, motivación, tratamiento eficaz y equitativo de los asuntos, buena fe) tiene –debe tener– plasmación efectiva y lleva aparejado, por ello, un correlativo elenco de deberes plenamente exigible por el ciudadano a los órganos públicos”. Doktrina bermatzaileenari jarraiki, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legeak ere administrazio onerako eskubidea aitortzen du 64. artikuluan, eta 3 e) idatz zatian erabaki publikoak arrazoitzeko eskubidea txertatzen du, eta, bereziki, haien interesei eragiten dietenak, prozedura legeetan ezarritako moduan,

³Auzitegi Gorenaren. 5342/2015 Epaia, azaroaren 5ekoa [ECLI:ES:TS:2015:5342]. Hemen eskuragarri: <https://www.poderjudicial.es/search/openDocument/08d313008694aeee>

⁴ Auzitegi Gorenaren. 3279/2020 Epaia, urriaren 15ekoa [ECLI:ES:TS:2020:3279]. Hemen eskuragarri: <https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/cc413a8d0c5163e9/20201027>



eta babes juridiko handiagoa eman dio Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 35. artikuluan berariaz aitortutako funtsezko eskubide horri, funtsezkoa baita administrazio erabakiak irizpideen arabera hartzea saihesteko.

Hirugarrena. Prestazioa iraungitzearen ondorioak bizikidetzaren unitate berezira hedatzeko behar bezala arrazoitutako edo zentzuzko arrazoirik ez egoteari gehitu behar zaio erabakia 18/2008 Legearen asmoaren eta helburuaren aurkakoa dela. Lege honen helburua da norberaren, gizartearen eta lanaren arloko bazterkeria egoerak arintzea, eta herritartasun eskubide sozialak benetan baliatzeko behar beste baliabide pertsonalik, sozialik edo ekonomikorik ez dutenei gizarteratzen laguntzea (1. artikulua). Beraz, ez da betetzen lege honen helburua prestazioa iraungitzearen ondorioak guraso bakarreko familia horretara hedatzea erabaki zenean, gizarte bazterkeriako egoera larriagotzen baitu. Era berean, ez dator bat ere ez 18/2018 Legearen 28.4 artikuluan jasotako helburu zehatzarekin (4/2011 Legeak emandako idazketan). Horren bidez ezartzen da eskaera presaz izapidetu behar dela, ordura arte titularrak zen pertsonari dagokion DSBE jasotzeko eskubidea iraungitzeak edo mantentzeak bizikidetzaren unitateko gainerako kideengan ondorio kaltegarriak baditu. Arartekoak aztertu duen kasuan, DSBE jasotzeko eskubidea iraungitzearen ondorioz, haur jaioberri baten ama ezkongai langabetu bat baliabide nahikorik gabe geratzen da. Beraz, ezeztatzeko ebazpenak ez ditu behar bezala aztertu bizikidetzaren unitateari diru-sarrerak kentzeko administrazio erabakiak haur horren bizitzan izan ditzakeen ondorioak. Gainera, kalte horiek ez ziren aipatu ere egin Arartekoari bidalitako txostenean.

Arartekoak 2/2015 Gomendio Orokorra egin zuenetik (Politika publikoetan adingabearen interes gorenaren kontuan hartzeko betebeharrari buruz, bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sistemari⁵), erakunde honek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari gogorarazi dio, administrazio batek bizikidetzaren unitate bati diru-sarrerak kentzea erabakitzen duenean, kontuan hartu eta behar bezala baloratu behar dela erabaki horrek haurren bizitzan duen eragina.

Betebehar hori honako honetan dago oinarrituta: Nazio Batuen Haurren Eskubideen Konbentzioak, 1989ko azaroaren 20koak, 3. artikuluan ezartzen du adingabearen interes gorenaren printzipioa eta eskubide hori. Arartekoak Haurren Eskubideen Batzordearen 14. Ohar Orokorren⁶ Gomendio Orokorrean mintzatu zen haurren interes gorenaren funtsezko lehentasuna izateko eskubideari buruz⁷. Izan ere, ohar horren IV.A.1.b)) puntuan argitzen denaren arabera, interes gorenaren printzipioa errespetatzea eska daiteke haurrei zeharka eragiten dieten erabakietan; hau da, ez

⁵ **Euskadi. Arartekoa.** Arartekoaren 2/2015 Gomendio Orokorra, apirilaren 8koa. Politika publikoetan adingabearen interes nagusia kontuan hartzeko betebeharra; bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sistemari [Online eskuragarri]. Hemen eskuragarri: <https://www.ararteko.eus/eu/arartekoaren-22015-gomendio-orokorra-apirilaren-8koa-0>

⁶ Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa sinatu duten estatuek betetzen ote duten jarraitzeaz eta ezarri behar den eremuetan behar bezala interpretatzeko orientabideak emateaz arduratzen den organoa.

⁷ **Nazio Batuak.** Haurren eskubideei buruzko hitzarmena. Haurren Eskubideen Batzordea. 14. ohar orokorra (2013), zeinak ezartzen duen haurrak eskubidea duela bere interes gorenaren lehentasunez kontuan hartua izan dadin (3. artikulua, 1. paragrafoa). [Online eskuragarri]: http://www2.ohchr.org/English/bodies/crc/docs/GC/CRC.C.GC.14_sp.pdf



bakarrik haiengana zuzendutako administrazio egintzetan, baita haiengan eragin dezaketenetan ere, nahiz eta egintzon zuzeneko hartzaileak ez izan.

Ohar Orokor hori kontuan hartu da urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa aldatzeko, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoak emandako idazketan, eta Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoaren 2. eta 3. artikuluen idazketan txertatu da. Artikulu horiek adingabearen interes gorena garatzen dute, eta aplikatzeko jarraibideak ematen dituzte. Ildo horretan, 3. artikulua berriaz ezartzen du botere publikoen jarduketa nazioarteko araudi horretara egokitu behar dela. Eta, bestalde, Konstituzio Auzitegiaren arabera, oinarriko eskubideen interpretazioak, giza eskubideei buruzko itunei jarraikiz, “ezin du alde batera utzi nazioarteko itun eta akordio horiek ezarritako berme-organoek egiten duten interpretazioa”⁸.

Laugarrena. Azkenik, garrantzitsua da gogoratzea kexagileari ondorioak hedatzea egin zuen bizikidetzaren eskubidea iraungitzeak Arartekoaren ebazpen bat eragin duela: **Arartekoaren 2023R-1952-21 EBAZPENA, 2023ko maiatzaren 26koa.**

Bertan, Arartekoak iraungitzeko erabakia aztertu ondoren gomendatu du DSBE eta EPO jasotzeko eskubidea iraungitzeko ebazpena berrikusteko, ez baitago arrazoirik prestazio horiek iraungitzeko. Arartekoak bertan jasotako gogoetak bidali ditu, bai eta oinarri juridikoak ere, berrikus daitezkeen gomendatzeko. Nolanahi ere, azpimarratu behar da kasu honetan kexagileari DSBEren eskaera ezeztatzen erabakia oinarrituta dagoela **ez zegoen** aurretik iraungitako DSBE prestazioaren ondorioak hedatzen.

Lanbidek DSBEa ukatu dio ardurapean haur bat duen guraso bakarreko familia bati, eta aurretik eratzen zuen bizikidetzaren unitateari DSBEa iraungitzearen ondorioak hedatu dizkio, horiek zergatik hedatu behar izan dituen azaldu gabe, eta adingabearen interes gorenari eragitea kontuan hartu gabe. Besterik gabe azaldu du araudiak horretarako ematen dion eskumena baliatu duela eta bizikidetzaren unitatea ondoren eratu zela. Gainera, bazekien ahalmena zuela guraso bakarreko familia horri DSBE emateko, izan ere, azken horrek ez zuen inolako erantzukizunik izan lehenago eratzen zuen bizikidetzaren unitatearen DSBE eskubidea iraungitzeko.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera

⁸ Ikusi, zentzu horretan, honako hau: Konstituzio Auzitegia (bigarren sala). 87/2019 Epaia, maiatzaren 8koa, bigarren oinarri juridikoa. ECLI:ES:TC:1989:81. Hemen eskuragarri: <https://hj.tribunalconstitucional.es/HJ/es/Resolucion/Show/1287>; eta Konstituzio Auzitegia (lehenengo sala). 116/2006 Epaia, apirilaren 24koa, bosgarren oinarri juridikoa. ECLI:ES:TC:2006:116. Hemen eskuragarri: <https://hj.tribunalconstitucional.es/HJ/es/Resolucion/Show/5718>



GOMENDIOA

Aurreko gogoetak oinarri hartuta, berrikusi egin behar da DSBE jasotzeko eskubidea ukatzeko ebazpena, izan ere ez dago arrazoirik kexagileak lehenago eratzten zuen bizikidetza unitateari prestazioa iraungi izanaren ondorioak gaur egun eratzten duen bizikidetza unitateak jasan behar izana justifikatzeko.

Lanbidek kontuan hartzea adingabearen interes gorena, lehenasunezko kontu gisa, apirilaren 8ko 2/2015 Gomendio Orokorra errespetatuta.

